



Arartekoaren Ebazpena, 2007ko abenduaren 11koa; horren bidez, Oñatiko Udalari gomendatzen zaio trafikoko seinale jakin batzuk bi hizkuntzetan eman ditzala.

Aurrekariak

1. Pertsona batek kexa adierazi zuen Oñatiko udalerriko hainbat seinale eta argibide-seinaletan (monumentuei, trafikoari, norabideari, aparkalekuei, udaletxeko zerbitzuei, udaltzainen identifikazioari eta abarri dagozkienetan) euskara bakarrik erabiltzen zela.
2. Konstituzioari eta Autonomia Estatutuari jaramon eginez, kexak euskararen erabilera arautzen duen azaroaren 24ko 10/1982 Oinarrizko Legeari egiten zion aipamena, zehazki, 8.2 artikuluari, eta, bide publikoan jarritako trafikoko seinaleak bi hizkuntzetan ez zeudenez, hizkuntzaren alorreko arauak urratzen zirela ondorioztatu zuen.
3. Arartekoak kexa helarazi zion Oñatiko Udalari, haren balorazioa ezagutze aldera.
4. Haiengandik jasotako erantzunean, adierazitako udalak uste izan zuen 10/1982 Legearen izenburuak berak (euskararen erabileraren normalizazioa) babestu egiten duela Udalaren jarduna. Hori frogatzeko 8.3, 26, 27 eta 30. artikuluei heldu zien.

Gizarteko alderdi jakin batzuetan auzotarrek euskaraz aritzeko aukera izateko jardun zuela argitu zuen, 1987an euskara Udalaren jardunean erabiltzeko hartutako akordioari helduz.

Kontuan izan beharrekoa da biztanleriaren portzentaje altuak badakiela euskaraz Oñatin (ehuneko laurogeita bostek). Hizkuntza horren erabilera, halaber, altua da, % 84koa haurren kasuan, % 88koa gazteen kasuan eta, oro har, % 60,22koa.



Seinaleen ulermenari dagokionez, erabilitako hitz asko euskaraz bakarrik badaude ere, Udalak uste du horien erabilera hedatuta dagoela eta, beraz, ezagunak direla (adibidez, udaletxea, kiroldegia eta abar), eta horietako asko modu berean ezagutzen diren piktogramekin batera erabiltzen direla, eta, horregatik, ez dagoela zertan arazorik egon seinaleen eta argibide-seinaleen edukia interpretatzerakoan.

Udalaren ustetan bere jarduna egokia da euskararen erabilera normalizatzeko, hura bizitzaren eremu guztietan agerraraztea bultzatzean.

Azkenik, adierazi zen, nahiz eta udalerrri turistikoa izan, unibertsitatea eta industria dituen, eta, beraz, bisita asko jasotzen dituen, inoiz ez duela alor horretako kexarik jaso.

Gogoetak

1. Lehenik eta behin, badirudi komenigarria dela adieraztea aztertzen ari garen egoera —bi hizkuntza ofizial dauden tokietan hizkuntza bakarra erabiltzea— beste autonomia erkidego batzuetan ere jazotzen dela, beraz, ez da harritzekoa zenbaitetan gurean ere gertatzea.
2. Honen antzeko beste kexa batzuekin egin dugun moduan, kontuan izan dugu mota ezberdinetako seinale eta argibide-seinaleetan euskara bakarrik erabiltzeko erabakiak ez direla kapritxoak aukera izan.

Hizkuntza ofizial hori bakarrik erabiltzea benetako komunikaziorako baliabide izateko aukera euskaraz hitz egiten duen biztanle talde handia duten udalerrietan agertzen da. Hori dela-eta, Eusko Jaurlaritzak Eusko Legebiltzarrarentzako eginiko 2001eko otsailaren 28ko txostenak, tokiko erakunde publikoetan euskararen erabilera normalizatzeko ekimenei buruzko atalean, bereziki euskaldun asko dagoen guneei dagokienez, bi hizkuntzen baterako erabilera malgutzea komeni dela aipatzen du: *“Toki esparruan du bizitasun gehien euskararen erabilerak eta etorkizunean handitu egin daiteke benetako komunikazio tresna edo hizkuntza gisa, beti gaztelaniaren ondoan joan beharrik izan gabe, baina, aldi berean, inolako bereizkeriarik egin gabe administrazioarekiko ad extra harremanetan gaztelania hizkuntza ofizial gisa erabili behar edo nahi duten pertsonetikiko.”* (Euskararen Aholku Batzordearen Lege Garapeneko Batzordeak Eusko Legebiltzarraren 1999ko abenduaren



10eko bilkuran onartu zen 4. Ebazpenari dagokionez egindako txostena, 102. orrialdea).

Dirudienez, eztabaida gutxien eragiten dituen erantzuna bi hizkuntza ofizialak erabiltzea litzateke kasu guztietan. Horrek, antza, jarrera guztiak harrapatuko lituzke, eta gure autonomia erkidegoan hizkuntza ofizialen erabilerarako ezarritako araudiari egokituko litzaioke. Araudia 10/1982 Legeak ezarritakoa litzateke.

Bi hizkuntza ofizialen erabilerak kasu guztietan edozein jarrera bil dezakeela adierazteari dagokionez, badirudi ez dela hain garrantzi gutxikoa. Izan ere, aurreko gogoetan adierazitako arrazoiak kontuan hartuta, herri eremuan du euskararen erabilerak indar gehien. Horrek ez du esan nahi, halabeharrez, gaztelaniarekin bat etorri behar duenik, eta, beraz, komunikaziorako benetako baliabide izateko aukera bat da. Diskriminazioa sor badaiteke bakarrik jarri behar litzateke zalantzan baliabide hori.

Hizkuntzaren alorreko iritzi horrek adierazitako alorretan oinarririk izanda ere, 10/1982 Legearen 8.2 artikulua ekarri behar dugu ahotara. Horren arabera, *“Euskal Herriko Autonomia-Elkarteari herri-agintariek esku hartu dezateneko egintza guztiak, eta bai arduralaritza-mezu eta adierazpenak ere, bi hizkuntzetan egon beharko dute, doakienek berariz Autonomia-Elkarteko hizkuntza ofizialetatik bat aukeratu dezatenean salbu”*. Izan ere, kexa aurkeztu duenak azaldu duen bezala, artikulua pentsarazten digu aipatu kasuetan euskara eta gaztelania erabili behar direla.

Udalari egindako informazio eskaeran esan bezala, gure ustez, ez dirudi aurreikuspen hori nahikoa denik aurkeztutako kontua konpontzeko, aipatzen dituen kasuak ez baitira beti egintzak, jakinarazpenak edo komunikazioak zentzu hertsian esanda. Kexa honek harrapatzen dituen kasu guztiak ezarpenak *“egintza orori”* egiten dion aipamenaren pean jartzea gehiegizkoa iruditzen zaigu.

Legaltasunaren ohiko alde horretatik, uste dugu arrazoiak badaudela Udalaren aukera babesteko. Izan ere, erabakiak zerikusia du hura hartua izan den tokiko esparru soziolinguistikoarekin eta horrek euskaraz ez dakitenengan izango duen eragina beste ikuspegi batetik aztertu beharra dakar, berdintasun printzipioaren ikuspegitik hain zuzen.



3. Zilegi da 8.2 artikulua hartuta ohiko legezko tasun kontu bati buruz egin duen interpretazioarekin ados ez egotea. Hori gorabehera, uste dugu interesgarriagoa dela kexa hau ikuspegi materialetik aztertzea, hau da, komunikazio baliabideez ari garela kontuan izanda zera aztertzea: ea seinale eta argibide-seinale horiek Konstituzioaren 14. artikuluan jasotako berdintasun printzipioaren aurkako diskriminazioaren xede izatea ekarriko dien euskaraz ez dakitenei. Konstituzioaren aurkakotzat jo bazen ere, uste dugu 10/1982 Legearen 8.3 artikulua, Udalaren erantzunean aipatutakoak, esanahi hori zuela: hain zuzen ere, hizkuntzagariko diskriminazioak saihestea.

Lehen adierazi dugu hizkuntza ofizial bakarra erabiltzea ez dela hain bitxia beste autonomia erkidego batzuetan, eta uste dugu arazoak han duen esparru berdinean aztertu behar dela hemen: adierazitako berdintasun printzipioa urratzen den edo ez. Ikuspegi horretatik abiatuz, aztertu behar duguna da ea erabilitako hizkuntza ofiziala ez ezagutzeagatik pertsona bati seinaleak jakinarazi nahi duen edukia ezagutzea galaraztera iristen den. Kasu horretan, jardura desegokia dagoela onartu ahal izango dugu.

Gure ustez, hori da kexa honen funtsa aztertzeko erabili behar dugun oinarriko printzipioa. Funtsean, Konstituzio Epaitegiak 10/1982 Legeari buruz emandako doktrina aplikatu behar da. Horren arabera, *“botere publikoek beren ekimenez edo interesdunek hala eskatuta erabil dezakete ofizialak diren bi hizkuntzetatik bakarra, hala araututa baldin bada eta erabilitako hizkuntza ez dakiela froga dezakeen interesdunen baten eskubideak kaltetzen ez badira”* (9. oinarria KAE 82/1986).

Gure ustez, seinale batean, argibide-seinale batean edo interesdunak aipaturiko gainerako kasuetan euskara bakarrik erabiltzea egokia izan daiteke, orobat, helburua ez denean hutsalduta geratzen —hartzaileei edukia ezagutzea posible zaienean—. Horrela, bada, herritarrek haiek ezagutzen duten hizkuntza ofizialean, batean zein bestean, aritzeko duten eskubidean mugak izan ditzaketen ikustea litzateke xedea. Helburua benetako diskriminaziorik ez izatea izan behar da. Aitzitik, udaleko bizitzaren zati den guztia —10/1982 Legearen 8.2 artikulua aipatzen duen trafiko juridikoa salbuetsiz— eta, beraz, esku-hartze publikoaren xede dena bi hizkuntzetan izan behar izatearen nahia betetzea ia ezinezkoa da, ezinezkoa den modu berean irrati edo telebista bidez eskaintzen dena beste hizkuntza ofizialean egin denaren bikoizketa izatea.

4. Aztertu ditugun seinale gehienetan ikusi ahal izan dugu euskararen erabilera guztiok ezagutzen ditugun piktogramen bitartez irudikatu daitekeenean egiten



dela, beraz, uste dugu ez litzatekeela arazorik egon behar informatzeko xedea betetzeko. Udaltzaingoaren kasuan gauza bera geratzen da. Izan ere, "udaltzaingoa" hitzaren itzulpena bereizgarrian agertzen ez bada ere, uniformeak berak udaltzainak direla jakinarazten digu.

Udaletxearen barruan jarritako kartelei dagokienez, egia da horietako asko euskaraz dakitenek bakarrik ulertuko dituztela. Udaletxearen barruan egotean, ordea, eta, beraz, jendearen arretarako ordutegian erabilgarri bakarrik, ulertu behar dugu udaletxera doazen erabiltzaileek informazioa jasotzeko beste elementu batzuk dituztela (herri langile bati edozein unetan galdetzeko aukera dago beti) ezjakintasunaren kalteak ez jasotzeko. Ziurrenik euskaraz dakitenek ere erabiltzen duten bidea da.

5. Adieraziko dugun seinalearen gainean egindako azterketak arazo ezberdin bat planteatzen duela uste dugu. Izan ere, erabilitako piktogramak ez dira nahikoak esanahia ulertzeko eta testuarekin osatu behar dira. Gure informazio eskaeran adierazi genuen trafiko seinalea izango litzateke, *oinezkoen alderdia* dioena eta ibilgailu batzuen zonalderako sarbidea arautzen duena "*Lanegunetan, zamalanak izan ezik*" adieraziz.

Arartekoaren ustetan beste seinale batzuk ulertzeari dagokionez zure erantzunean bildutako argibideak ezin dira kasu honetan aplikatu.

Onartzen dugu oinezkoen zonaldean badirela kanpoko beste ezaugarri batzuk trafikoari mugatutako zonaldea dela ulertu ahal izateko. Hala eta guztiz ere, zaila da argitzea zein ibilgailu mota edo jarduera geratzen den sarbide debekutik kanpo eta zein egunetan ahalbidetzen den sarrera (*lanegunetan zamalanak*).

Seinale hori ulertzeko zailtasun argiarekin batera, 10/1982 Legearen 10.2 artikulua beren beregiko ezarpena duela ikusi dugu trafikoko seinaleei dagokienez. Horren arabera, bide publikoetan instalatutako trafikoko seinaleak eta argibide-seinaleak bi hizkuntzetan idatzita egongo dira.

Seinaleztatu den modua ikusita, uste dugu kexa honek heltzen duen trafikoko argibide-seinalea (oinezkoen alderdia / zamalanak) nekez egokitzen zaiola aipatutako lege ezarpenari. Hori dela eta, zaila egiten zaigu seinale honen kasuan hizkuntza ofizial propioaz gain gaztelania ere erabiltzea ez den beste gomendiorik ematea, piktograma ez baita nahikoa.



Hori guztia dela-eta, Ararteko erakunde hau sortzen eta arautzen duen otsailaren 27ko 3/1985 Legearen 11. artikuluan aurreikusitakoarekin bat etorritik, honako gomendio hau egiten da:

48/2007 GOMENDIOA, abenduaren 11koa, Oñatiko Udalari egina.

Gomendio honetan deskribatu den trafikoko seinalearen errotulazioa berrazter dadila eta bi hizkuntzetan eman dadila.